Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2011IPLE0003
**Eguna:** 2011-02-24
**Ordua:** 12:00-13:00
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | HAMAIKABAT |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | HAMAIKABAT |
| - Imanol Lizarralde Marín | HAMAIKABAT |
| - Eloy Bazan Bazan | HAMAIKABAT |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ/PNV |
| - David Franco Chavale | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |
| - Carlos de la Peña Hornés | Atxiki gabeko taldea |

**Bertaratu ez direnak**

-

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2011ko urtarrilaren 28 eta otsailaren 9ko akten onarpena** | **1** | Aprobación de las actas de 28 de enero y 9 de febrero de 2011 |
| **2010eko Dekretuen berri eman** | **2** | Dación de cuenta de Decretos 2010 |
| **Plan Orokorraren aldaketa zehatza - Ubarburu** | **3** | Modificación puntual del Plan General – Ubarburu |
| **Informazio, galdera-erreguak** | **4** | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1. 2011ko urtarrilaren 28 eta otsailaren 9ko akten onarpena

Urtarrilaren 28ko aktari dagokionez, 1. puntuan abstentzioaren ordez aurkako botoa azaldu behar duela ñabartu du Carlos de la Peñak.

Ñabardura hori onartuta bozkatzeko eskatu du alkateak eta aldeko 7 botorekin onartu da (Hamaikabat, EAJ/PNV eta PP taldeena); PSE-EE eta EB-B abstenitu egin dira eta ez atxikiak aurkako botoa eman du.

Ondoren, otsailaren 9ko akta onartzeko bozketa egin du alkateak. Carlos de la Peñak ñabartu du premiazko deklarazioan abstenitu egin zela, eta 3. puntuan 4. orrian bere txandan honako hau erantsi behar dela: zegozkion ardura politikoak eskatu zituztela, gure funtzioa gobernu taldearen lana fiskalizatzea baita.

Ñabardura hori onartuta bozkatzeko eskatu du alkateak eta aldeko 7 botorekin onartu da (Hamaikabat, EAJ/PNV eta PP taldeena); PSE-EE eta EB-B abstenitu egin dira eta ez atxikiak aurkako botoa eman du.

### 1. Aprobación de las actas de 28 de enero y 9 de febrero de 2011

En relación al acta de 28 de enero. Carlos de la Peña matiza que en el punto 1 en lugar de abstención debe figurar voto en contra.

Admitida esta matización el alcalde somete a votación el acta que es aprobada con 7 votos a favor de los grupos Hamaikabat, EAJ/PNV y PP, con la abtención de PSE-EE y EB-B y voto en contra del no adscrito.

A continuación el alcalde somete a su aprobación el acta de 9 de febrero. Carlos de la Peña matiza que en la declaración de urgencia se abstuvo, y que en el punto 3, página 4 en su intervención hay que añadir: que pidieron las responsabilidades políticas oportunas dado que nuestra función es fiscalizar la labor del equipo de gobierno.

Admitida esta matización el alcalde somete a votación el acta que es aprobada con 7 votos a favor de los grupos Hamaikabat, EAJ/PNV y PP, con la abtención de PSE-EE y EB-B y voto en contra del no adscrito.

### 2. 2010eko Dekretuen berri eman

2010.12.31era arte gobernu-organoek egindako dekretuak azaldu dira.

### 2. Dación de cuenta de Decretos 2010

Se da cuenta de los decretos emitidos por los distintos órganos de gobierno hasta 31.12.2010.

Zorione Etxezarraga zinegotzia Osoko Bilkurara bildu da

Se incorpora al Pleno la concejal Zorione Etxezarraga

## 3. Plan Orokorraren aldaketa zehatza - Ubarburu

## 3. Modificación puntual del Plan General - Ubarburu

Alkateak hirigintzako batzordearen irizpena aurkeztu du, honako hau proposatuz:

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de urbanismo en el que se propone:

***Lehenik.-*** HAPNan 24. HEEari ("*Ubarburu Zabalpena II*") dagokionez egin beharreko aldaketari buruzko espedienteari eta hirigintza-fitxa bateratuak eta herritarrek parte hartzeko programak osatzen duten II. Eranskinari hasierako onarpena ematea. Behin behineko onarpenerako aurkezten den dokumentuan, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.- Aurkezten den eranskina onartu beharreko dokumentazioaren parte izango da.

2.- Egitura-antolamenduan, orokor gisa ezarritako 22 m-ko altuera mugatu beharko da eraikinean. Altuera normala gainditzen duten eraikuntza-altuerak beharrezkoak diren gutxieneko ehunekoetara mugatu beharko dira, jardueraren ezaugarrien arabera (antolamendu xehatuan zehaztutakoari jarraiki).

3.- Eremuari dagokion hirigintza-fitxan, azpiegitura-sare orokorrekiko hartuneak eta konexioak eremuaren kargura izango direla jaso beharko da, baita 24. HEEtik ("Ubarburu Zabalpena II") kanpo beharrezkoak diren tarteetan ere.

4.- Eremuari dagokion araudi partikularrean, definizioren bat sartu beharko da, lurzati pribatu eraikiezinetako 10 m-ko zabalerako bandak paisaiaren integraziorako erabiliko direla bermatzeko

***Primero.-*** Aprobar inicialmente el Expediente de Modificación del P.G.O.U para el Área A.I.U 24 "*Ubarburu Zabalpena II*" y el anexo II consistente en la ficha urbanística refundida y el programa de participación ciudadana, con las siguientes condiciones a cumplir en el documento que se presente para la aprobación provisional:

1.- El anejo presentado será parte integrante de la documentación a aprobar.

2.- En la ordenación estructural se deberá limitar la altura de edificación de 22 m establecida como general. Las alturas de edificación que excedan de la altura normal deberán limitarse a los porcentajes mínimos necesarios según las características de la actividad (en correspondencia con lo definido en la ordenación pormenorizada).

3.- En la ficha urbanística del área, se debe recoger que corren a cargo de la misma las acometidas y conexiones a las redes generales de infraestructuras, incluso en los tramos necesarios fuera del ámbito de la "A.I.U.24 Ubarburu Zabalpena II".

4.- En la normativa particular del área, se deberá incluir alguna definición con el objeto de garantizar que las bandas de 10 m de ancho de parcela privada no edificable se destinarán efectivamente al uso de integración paisajística

(zuhaitzak landatzeko, funtsean).

5.- Plan Nagusiaren zenbaketa-taula orokorrak erantsi beharko dira, industria-eremu urbanizagarri berria gaineratuta.

6.- Behin behineko onarpenerako dokumentuan, "eranskinaren" barnean hartutakoa eta egiten diren aldaketa eta egokitze guztiak bateratu beharko dira.

***Bigarren.-*** Dokumentua jendaurrean jartzea, eta, horretarako, GAO aldizkarian eta lurraldeko tiradarik handieneko egunkari batean edo batzuetan argitaratzea hilabeteko epean, azken argitalpenaren egunetik aurrera kontatzen hasita.

***Hirugarren.-*** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorrerako Departamentuari ingurumen-inpaktuari buruzko aurretiazko txostena egin dezan eskatzea, eta eskaera horri aldaketari buruzko dokumentua eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana eranstea.

***Laugarren.-*** Erabaki hau Aizkibel SA eta USLANark SLP enpresei jakinaraztea.

(básicamente, plantación de árboles).

5.- Se deberán adjuntar los cuadros de cómputo generales del Plan General con la incorporación de la nueva área urbanizable industrial.

6.- Se deberá refundir, en el documento para la aprobación provisional, lo incluido en el "anejo" así como todas las modificaciones y ajustes que se hagan.

***Segundo.-*** Someter el Documento a información pública, por medio de su publicación en el B.O.G y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio durante el plazo de un mes a partir de la última publicación.

***Tercero.-*** Solicitar al Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la emisión del informe preliminar de impacto ambiental, acompañando a dicha solicitud el Documento de modificación y el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

***Cuarto.-*** Notificar el presente acuerdo a Aizkibel S.A. y a USLANark S.L.P.

Bozketa egin ondoren, irizpena onartu da, aldeko 7 botorekin (4 Hamaikabat, 3 EAJ/PNV), 2 abstentziorekin (EB-B, PP) eta aurkako 2 botorekin (PSE-EE eta ez atxikia).

Carlos de la Peña zinegotziak hitza hartu eta adierazi du aurkako botoa eman duela ad hoc egindako birkalifikazio bat izan delako; izan ere, orain jarduera-lizentziarik gabe dagoen hormigoi-planta bat birkokatzea da horren asmoa, eta espediente horren izapidetzean partaidetza-prozesu bat izango dela jasotzen da baina ez du jasotzen garapen-egutegi bat eta horregatik

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor ( Hamaikabat 4,3 EAJ/PNV), 2 abstenciones (PP, EB-B) y 2 votos en contra (PSE-EE y no adscrito).

Interviene el concejal Carlos de la Peña indicando que ha votado en contra porque es una recalificación ad hoc, dado que lo que se pretende es reubicar una planta hormigonera que actualmente está sin licencia de actividad, y se recoge que en la tramitación de este expediente habrá un proceso participativo pero no se recoge un calendario de desarrollo por lo que no puedo votar a favor.

ezin du aldeko botoa eman.
Jose Angel Sanchez zinegotziak adierazi du hirigintzako kontseilu aholkularia 2008an sortu zela plangintzako aldaketetan esku hartzeko eta oraindik ez dela bildu Plan Orokorrari aldaketa puntual hori proposatu aurretik; baita ere adierazi du aldaketa horretan ez duela udal-arkitektoak parte hartu, arkitekto aholkulariak baizik, eta hori adarra jotzea dela iruditzen zaio.

Jose Manuel Herzog zinegotziak esan du lanpostuei eustearekin ados dagoela baina ez dagoela ados azaldu bezala birkalifikazioarekin; horregatik tokiz kanpo ikusi du bere burua eta abstenitu egin da.

David Franco zinegotziak adierazi du ez dituela eragiketaren xehetasunak ezagutzen eta horregatik abstenitu dela; hala ere gainerako zinegotziek adierazi dutenarekin ados dagoela azaldu du.
Alkateak hitza hartu du esateko Ergobiako eta Buenaventurako hormigoi-plantak berriz kokatzeko udalak hitzarmen bat sinatu duela eta udalbatzaren asmoa dela eraginpeko lanpostuei eustea. Aldaketa puntual horrekin arazo hori konpontzea besterik ez dutela nahi adierazi dute eta espediente horren garapenean prozesu parte-hartzaile bat bermatu eta nahitaezko ingurumeneko txostenak egingo dira; hori behin betiko onartzea Foru Aldundiari dagokio.

2010-4-20ko Osoko Bilkuran jarduera horretarako zenbat metro behar ziren ez zekitela adierazi zutela eta behar ziren erreserbako metro karratuak

El concejal Jose Angel Sanchez indica que en el año 2008 se creó el consejo asesor de urbanismo para intervenir en modificaciones de planeamiento y que todavía no se ha reunido antes de proponer esta modificación puntual de Plan General, indicando que en esta modificación no ha participado el arquitecto municipal sino el asesor arquitecto y considera que es una tomadura de pelo.

El concejal Jose Manuel Herzog dice que está a favor del mantenimiento de los puestos de trabajo pero que no está de acuerdo con la recalificación planteada por lo que se ve descolocado y se ha abstenido por ello.

El concejal de David Franco indica que desconoce el detalle de la operación y que por ello se ha abstenido si bien suscribe lo manifestado por el resto de concejales.

Interviene el alcalde que el ayuntamiento tiene firmado un convenio para reubicar las plantas hormigoneras sitas en Ergobia y Buenaventura y que es deseo de la Corporación salvaguardar los puestos de trabajo afectados. Indican que con esta modificación puntual se pretende solucionar este problema y en el desarrollo de este expediente se garantizará un proceso participativo y habrá los preceptivos informes ambientales, correspondiendo a la Diputación Foral su aprobación definitiva.

Interviene la concejal Zorione Etxezarraga indicando que en el pleno

zehazteko eskatuz beren kezkak azaldu zituztela esanez hitza hartu du Zorione Etxezarraga zinegotziak. Enpresak orain behar dituen metroak jakinarazi ditu eta lurzoru osoa jarduera horretarako eta ez beste edozertarako erabiltzeko konpromisoa hartu dute, hortaz 3 kontrol aktibatu dira: 1.- ezin izango da lursaila banandu. 2.- ez da onartuko banaketa horizontala egitea. 3.- eraistekotan, udala lehengoratzea aztertzen ari da lehentasunez eta atzera eskuratzeko eskubideekin. Hala ere, EAJ/PNV alderdiak jendaurrean jartzeko fasean alegazioak egingo ditu.

Carlos de la Peña zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du Zorionek aurreratutako lehentasunez eta atzera eskuratzeko erreferentziak gauzatuta ikusi nahi dituela.

Herritar batek hitza hartu du eta udalak Putzuetan egin duen gauza bakarra alferrik galtzea izan dela esan du eta orain hormigoi-planta gehiago sartu nahi dituztela inguru horretan. Aizkibelen planta Zakurmendegin sartzea da egin behar duena udalak eta Calcinor 27. poligonoko industrigunera joatea, lurzoru industriala erosteko kaudimena bai baitu lurzoru ez-urbanizagarria erosi beharrean. Bestalde, udalbatzari azaldu dio udalak oraindik ez duela hartu 27. poligonotik igotzen den errepidea.

Eloy Bazán zinegotziak adierazi du kokatu nahi denaren antzeko plantak ikusi dituztela eta kokapen egokia iruditzen zaiola; gainera planta horiek ez dute kutsatzen eta diseinu aldetik industria-pabiloia da. Deskalifikazio

de 20-4-2010 ya señalaron que no se sabían cuantos metros se necesitaban para esta actividad y formularon sus reservas pidiendo la concreción de los m2 de reserva que eran precisos.La empresa ahora ha comunicado los metros que necesita y se han comprometido que la totalidad de suelo se utilizará para esta actividad y no otra, de modo que han actividado 3 controles: 1º.- no se podrá segregar la parcela.2º.- no se admitirá hacer una distribución horizontal.3º.- en supuesto de desmantelamiento el ayuntamiento está estudiando su reversión via tanteo y retracto. No obstante, EAJ/PNV en la fase de exposición pública formulará alegaciones.

Interviene el concejal Carlos de la Peña indicando que quiere ver materializada las referencias de tanteo y retracto adelantas por Zorione.

Interviene un vecino quien señala que el ayuntamiento lo único que ha hecho en Putzueta es estropea y ahora se quieren meter más plantas hormigoneras en esta zona. Lo que debería de hacer el ayuntamiento es meter la planta de Aizkibel en Zakurmendegi y que Calcinor se vaya a la zona industrial del polígono 27, dado que tiene solvencia para comprar suelo industrial en lugar de no urbanizable. Por otro lado plantea a la Corporación que todavía estar sin recepcionar por el Ayuntamiento la carretera que sube desde el polígono 27.
El concejal Eloy Bazán indica que han visto plantas similares a las que se quieren ubicar y señala que le parece

horiek hauteskunde-kanpaina gertu dagoelako egin direla adierazi dute.
Herritar batek hirigintzako presidenteari planta horiek jarduera-lizentzia ote duten galdetuz hitza hartu du eta zinegotziak erantzun du Aizkibelek baduela eta gainerakoek ote duten aztertu behar duela.

la ubicación correcta y que estas plantas no contaminan y el diseño es un pabellón industrial. Indican que estas descalificaciones se hacen porque está próxima la campaña electoral.
Interviene un vecino preguntando al presidente de urbanismo si estas plantas tienen licencia de actividad, contestando el concejal que Aizkibel si tiene y el resto tiene que analizarlo.

## 4. Informazio, galdera-erreguak

Zinegotzi ez-atxikiak honako honi buruz galdetu du:
.- Astigarragan kokatuko den kamioi-plataformaren truke Foru Aldundiak udalari emateko kontraprestazioak.
.- Kultur-etxeko lursailen antolaketari buruzko partaidetza-prozesua nola doan.

PSE-EE alderdiko zinegotziak honako hau galdetu du:
.- Noiz aurkeztuko da 2011ko aurrekontua.
.- Nola doa Astigarraga Lantzen SA enpresako saneamendu plana.
.- Bi hormigoi-makinen kokapenarekin dirua epe motzera lortuko dela adierazi du baina epe ertainera udalerria hipotekatuko dela.
.- Hilabete honen 23an eskatutako txostenak egiteko eskatu du.

PP alderdiko zinegotziak gogorarazi du 2007an mozio bat aurkeztu zuela artxiboan dauden partitura guztien musika-artxibo bat sortzeko; urteak joan, urteak etorri, eta ez da ezer egin. Astigarragak babestu behar duen altxor bat da.

## 4. Información, ruegos y preguntas

El concejal no adscrito pregunta en relación a:
.- Contraprestaciones de Diputación al Ayuntamiento a cambio de la plataforma de camiones que se ubicará en Astigarraga.
.- Cómo va el proceso participativo en relación a la ordenación de los terrenos de la casa de cultura.

El concejal del PSE-EE pregunta:
.- Cuando se va presentar el presupuesto 2011.
.- Cómo va el Plan de Saneamiento de Astigarraga Lantzen S.A.
.- Indica que con la ubicación de las 2 hormigoneras se va ha obtener dinero a corto plazo pero se va a hipotecar el municipio en el medio plazo.
.- Solicita que se realicen los informes solicitados el 23 del presente mes.

El concejal del PP recuerda que en el año 2007 presentó una moción para creación de un artxibo musical con todas las partituras que hay en el archivo, han pasado los años y no se ha hecho nada.Es un tesoro que astigarraga debe protegerlo.

Kultura batzordeko presidenteak erantzun du gai hori kulturari bidali zitzaiola; dena den, gai hori berriz gogoan hartu eta erantzungo diola adierazi dio.
PP alderdiko zinegotziak bere esker ona adierazi dio horregatik.

La presidenta de la comisión de cultura contesta que se remitió el tema a cultura , toma nota nuevamente de este tema y le indica que le contestará.
El concejal del PP manifiesta su agradecimiento por ello.

Alkateak honako hau adierazi du:
1.- gobernu taldearentzat ez da ere atsegina kamioien aparkalekuaren gaia baina foru aldundiaren plangintzak horren kokalekua Astigarragan aurreikusi du.
2.- partaidetza-prozesuari dagokionez Prospectiker enpresari esleitu dio eta bihar hasiko ditu lana hasteko hartu-emanak.
3.- 2011ko aurrekontuari dagokionez, aholkularitza-enpresak lehenik Lantzen SA enpresaren Saneamendu Plana ixteko zain gaude, eta gero egingo dugu sozietate horren aurrekontuaren proiektua.

El alcalde indica :
1º.- que en relación al aparcamiento de camiones tampoco es del agrado del equipo de gobierno pero la diputación foral planificación ha previsto su ubicación en Astigarraga.
2º.- En cuanto al proceso participativo ha adjudicado a la empresa Prospectiker y mañana iniciaré contactos para el inicio del trabajo.
3º.- En cuanto al presupuesto 2011, estamos a la espera de que la empresa consultora cierre primero el Plan de Saneamiento de Lantzen S.A, para luego proyectar el presupuesto de dicha sociedad.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko otsailaren 21a

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**